

## LUMA BERRIEN AZTARNAK



# Ole Malmasin

Andoni ETXEBERRIA ELEXPURU

**B**eep! Beep! –esan du Bilboko alkateak. –Hiru ordu pasatxo behar dira trenez honaino etortzeko. Eta autoarekin, aldiz, bi-edo; auto ilararen bat harrapatuta gehiago ez bada...

–Ezin ditzakegu donostiarrak gugandik horren urrun utzi.

–...beno.

–Ez dago beste irtenbiderik.

–Beep, beep!

–Ez nago oso ziur, baina tira. Ongi da. Autobidearen proiektuari gure babesa eskainiko diogu.

–Has gaitzen Durangotik Bilbora arteko tartearekin.

–Hurra! Hurra!

Pozik agertu da Bilboko alkatea. Eta buelta oso bat eman du bere ardatzaren inguruan.

Garabiek, traktoreek, hondeamakinek eta langileek euren tokiak hartu dituzte. Eta lanari ekin diote: Pra-pra-pra-pra... taka-taka-taka-taka.

Horrela hilabete luzez, urtarok aurrea, eta autobidearen lehenengo kilometroak egin dituzte. Durango, Amorebieta, Galdakao eta... bi urte geroago, Basauri inguruetara heldu da jada A-8 autobidea.

Alabaina, ezusteko arazoa sortu zaie langile guztiei, ingeniari bereziki: Bilbora hurbilduz doazela, Malmasin menditik gero eta gertuago daude. Ezker-eskuin begiratu dute egunak aurrera doazela, baina azkenean, zuzen erakitzea besterik ez zaie gelditu. Ezker-eskuin... zuzen. Ibaia- ren ibilguari jarraitu beharrean. Baina, halako batean, heldu da mementoa zeinetan jadanik ez baitagoen ibaia- ren ibilguari jarraitzerik. Etxe pila honekin, ez dago autobidea erakitze-ko lekurik.

Azkenean, Malmasin mendiaren paretan daukate aurrez-aurre. Eta dagoeneko ezinezkoa da jarraitzea.

–Nolatan ez zenuten honetan lehenago pentsatu? –galdetu diete langileek ingeniariari.

–Ibaia- ren ibilgutik jarraitu ahal izango genuela uste genuen...

–Beep! Beep! –galdetu die Bilboko alkateak ingeniariari.

–Ibaia- ren ibilgutik jarraitu ahal izango genuela uste genuen.

Bilboko alkatea oso urduri jarri da. Autobide berria behar-beharrezkoa zuen donostiarrak Bilbora etor zitezten.

Bilboko alkatea Malmasin gainera igo da Basauriko alkatearekin eta ingeniariarekin batera, goitik arazoari irtenbidea aurkitzeko. Handik goitik, autobideak Bilborako bidean jarraitze-ko lekuak bilatu dituzte.

Ingeniari batek Galdakaoa seinalatu du: –Erletxetik abiatuta Txorierrira, eta Bilbora Egirletatik sartuko den autobidea egingo bagenu?

–Bai, eta honaino zertarako etorri gara? Beste irtenbide bat bilatu behar dugu.

–Eta bidean dauden Bolueta eta Begoñako etxeak botako bagenitu? Bertakoak beste norabait eramatea besterik ez genuke.

–Zoraturik ala? –esan du Bilboko alkateak– laster demokrazia etorriko da, eta ordainarazi egingo lidakete.

Bilboko alkateak eta Basauriko alkateak hausnarketa eta eztabaidan pasatu dute gau osoa. Eskuekin mendiaren paretak haztatu dituzte, eta aizto baten itxurako tramankuluarekin zitzadak eman dizkionte, erabakia hartu arte.

Hurrengo goizean ingeniariarekin berriz ere bildurik, Bilboko alkateak pentsatutakoa azaldu die:

–Mendia zulatu beharko dugu beste aldera heldu nahi badugu.

Harritu egin dira gainerakoak.

–Zulatu?

–Baina nola zulatuko dugu horrelako menditzarra?

Basauriko alkateak kartzela seinalatu du: –Hausnarketan orduak eman ostean,

gure azken erabakia izan da zezenak hiltzeagatik kartzelan dauden hiru zezenketariri mendia zulatzeko agindua ematea.

–Zezenketa bat antolatuko dugu eta hiru zezenketariek mendia zulatuko dute.

–Baina, jakina, mendiak ahalik eta gutxien sufri dezala.

Oso ontzat eman dute ingeniari-riek bi alkateen ideia.

Astebete geroago, Malmasingo zezenketa ospatzeko beharrezko prestaketak egin dira.

Mendia zulatzeko hiru hautagai daude; eta saria delituaren barkamena izango da.

Zezenketari-jantzia eta kapela soinean, lehenengo hautagaiak erronkari ekin dio. Artez mendira abiatuta, helburuarekin topo egin aurretik, jira-buelta egin, eta bi banderilla jarri dizkio. Ez dirudi, baina, mendiak zirkinik egin duenik.

Alkate eta ingeniari-riek txalo egin diote. Eta badoa berriz ere.

Basauriko alkateari “Oleee...” txikitxo bat ateratzen. Gorritu egin da gainerakoek begiratu dutela ikustean.

Kale. Banderilla bat lurrera erori da. Beste aukera bat zezen-hiltzailearentzat.

Bi banderilla sartu dizkio mendiari. Baina ez da zulorik ageri. Bere txanda bukatu da eta kartzela funtzionarioek kartzelara eramane dute berriz ere.

Bigarren hautagaiak erabaki irmoagoz egin dio aurre mendiari, korrika azkar batean, autobidearen azken pausoak ibili

eta salto egin du, banderilla pareta- ren beste leku batean iltzatuz. Eragin handi-agoa sortu du honek mendiaren- gan, zenbait harri erori egin baitira. Bigar- ren ekinaldian beste bi banderilla sartu dizkio, dotorezia handiz. Zezenketaria- ren detaileak harridura sortu du ikusleria murriztaren- gan.

Erabateko ziurtasunez, bigarren zezen- ketariak ezpata eskatu du. Inork uste gabe, baina Bilboko alkateak ezpata erabiltze- ko baimena eman dio.

Badoa bigarren zezenketaria, buelta er- di eman du autobidearen ertzer- a heldu baino lehen eta, salto txiki pare bat eman ostean, paretarantz jau- si eta zas! Benetako artearen erakusle, zezenketariak garbi- garbi sartu dio ezpata mendiari.

“Ring, ring!”. Bilboko alkateak irrika handiz hartu du telefonoa. Mendiaren bestaldetik gertatzen ari denaz informa- tuko duen informatzaileak hots egin dio.

–...eta? –galdetu du alkateak.

–Beep! Beep!

–Ixo, alua! Funtzionatu du, ala ez du funtzionatu?

–Bai ba, jauna! Lortu dute! Mendia zula- tu du eta ezpata honaino heldu da!

Eta modu honetan arazoa konponduta, hurrengo egunean bertan, autobideko la- nei berrekin diete Malmasingo zuloa handitzeko.

**Andoni Etxeberria Elexpuru** Leioa- Erandion jaio zen 1984an. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da.